

JESUS ETA ZAKEO

1

Bazan Jerikon gizona
ta Zakeo eritxona,
txikia zan ta basapikora
lasterka igona.

Nor ete zan Jesus ona
luzaro baten egona,
pozez entzun dau Jaunak berari
esaten deutsona.

3

“Ondo etorri nigana,
zeurea da daukadana”;
Zakeok pozik Jesus Jaunari
atean esana.

“Kaltetan egin dodana
lautan ordaintzen dot dana,
behartsuekin nai dot guztia
egin erdibana”.

5

Zenbat holako histori
edonoiz ta edonori,
orduak jazo jakona bera
gure Zakeori.

Erruki gutaz, Jaun Hori,
hemen gara hainbat txori...
Basapikotik jatsita emon
geure kategori.

2

“Jatsi zaitez hortik behera
ta zoaz ariñ etxera,
jakizu, gauez zugana noa
ostatu hartzera”.

-”Hau pozgarrizko aukera,
ustegabeen gainera!
Gauez gurera dator ostatur
nor-ta Jesus Bera!.

4

“Zakeo, hau poztasuna,
gaur zuk emon deustazuna!
Gaur heldu jatzu zure etxera
zoriontasuna.

Hori da askatasuna,
egiazko ondasuna;
ez jatzu inoiz damu izango
gaur egin dozuna”.

6

Zu zara, Jesus maitea,
gure ondasun betea;
jaso dogu gaur behera jasteko
zure konbitea.

Badozu borondatea
gaur gugana etortea,
nahi dozunean zabalik dozu
gurean atea.